# Ikasturte hasierako guraso-bilera

# LH 4. maila

Orereta-Errenteria, 2020ko irailaren 24a

# SARRERA

Orereta Ikastolan tutoreak dira gurasoentzako erreferentziazko pertsonak. Haiek ezagutzen dituzte ondoen ikasleen gorabeherak, eta beraz, informatuta egotea garrantzitsua da. Ikasleren batek jangelan geratu behar badu, edota autobusez aldatu behar badu, adibidez, tutoreek jakinaren gainean egon behar dute.

Era berean, tutorea da gurasoen zalantzak eta kezkak bideratzen dituena. Edozein arazoren aurrean, tutorearengana jo behar duzue gurasoek, eta haiek izango dira gaia behar den lekura bideratuko dutenak. Gainera, gai orokorretarako, gelako guraso ordezkariak dituzue, zuen zalantzak guraso batzordeetaraino eramango dituztenak.

Tutorearekin harremanetan jartzera animatzen zaituztegu, jolasgaraietan (11:00etatik 11:30etara) telefonoz edota zuen seme-alabaren bitartez, ohartxoak erabiliz. Eta aurrez aurreko bilera behar izanez gero, aurretiaz harremanetan jarriz. Beharrezkoa izango da tutoreari berarekin hitz egiteko hitzordua eskatzea; bestela, ezingo baitzaituzte behar bezala hartu.

Hemen tutoreen helbide elektronikoak ere:

- miribarren@oreretaikastola.eus
- masanchez@oreretaikastola.eus
- jbrinas@oreretaikastola.eus
- airiarte@oreretaikastola.eus

# GURASOEKIN BILERAK

I Ikasturtean zehar, aurrez aurreko bi bilera egingo dira familia bakoitzarekin. Horiez gain, bi bilera orokor egingo dira ikasturtean: bat hasieran eta bestea bukaeran. Lehenengoan, urteko planaren aurkezpen orokorra egiten da, bigarrenean egindako lanaren balorazioa.

# GELAKO FUNTZIONAMENDUA

## EGUNEROKO LANA

Ziklo honetan, ikasleekin lehen hasitako lanerako ohiturekin aurrera egiten jarraitu behar dugu.

## LANERAKO OHITURAK

- Adi egotea
- Lanak hasi eta bukatzea

- Postura egokian lan egitea
- Txukuntasuna
- Isiltasuna
- Autonomia
- Ondo egindako lana baloratzea
- Gorputz Hezkuntzako saiora jantzi egokia ekartzea (kamiseta eta toalla txiki bat)
- Agenda modu egokian erabiltzen ikastea
- Mantala edo kamiseta zaharra ekartzea plastikarako

ARAUAK

- Komunera joateko, sarrera, jolasgaraia eta irteerak aprobetxatu
- Gelako materiala eta bakoitzarena zaindu
- Gelan ordena eta txukuntasuna mantentzen saiatu
- Pasillo eta eskaileretan modu egokian ibili
- Txikle, gozoki, pipak... ezin dira jan gelan
- Elkarren arteko errespetua: hitz itsusiak, biraoak, irainak, jotzea... saihestu
- Orduarekin arreta eduki: barrura sartzeko, autobusa hartzeko...
- Jolasgarai, kirol eta autobus geltokietan:
    - Jolasen arauak errespetatu
    - Denei jolasten utzi
    - Barkamena eskatzen ikasi

ETXEKO LANAK

Etxeko lanen helburua GELAN IKASITAKOA sendotzea eta autonomiaz jokatzen ikasten joatea da. Ikaslea etxeko lana egiteko gauza ez bada, hobe da ez egitea edo ohar bat jartzea laguntzarekin egin duela esanez.

Ildo horretatik, 2.zikloan honako puntu hauetan oinarrituko dira etxeko lanak:

- Etxean, eskola agenda begiratuz, hurrengo egunerako beharrezkoak dituenak prestatzea.
- Egunero pixka bat irakurtzea.
- “Txoko txuri”-rako informazio bilatzerakoan lagundu eta adinera egokitutako materiala bidaltzen saiatzea.
- Albisteak ekartzera animatzea.
- Ingeleseko CD-ak entzutea.
- Memorizatze-lanak: taulak ikastea, aurkezpenak prestatzea…
- Biderketak, zatiketak...

IRAKURZALETASUNA

**Gelako liburutegia**

Gelako liburutegia osatzeko, ikasle bakoitzak, gustuko duen liburu bat ekarri beharko du; gutxienez, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz (urtarrilean, beranduenera). Mailegu moduan erabiltzen dira liburu horiek ikasleen artean. Libururen bat galduz gero, liburu berdina ekarri beharko litzateke, liburutegian hutsunerik ez geratzeko. Irakurketa horien jarraipena egiteko, ikasle bakoitzari irakurketa-agenda bana emango diogu bertan iritziak eta irakurketaren zenbait datu jasotzeko. Gainean egotea eskertuko genizueke.

Covid-19aren ondorioz, ikasleek entregatzen dituzten liburuak berrogeialdian utziko ditugu 48 orduz.

**Kontu kontari (bizikidetza-talde egonkorretan)**

Astean ordu erdi eskaintzen zaio. Irakasle bakoitzak ipuin bana kontatzen du bere gelan eta ikasleek hilabetez ipuin ezberdinak entzuteko aukera izaten dute.

# MATERIALA

MATERIAL KOLEKTIBOA

- Margoak, errotulagailuak, orriak…
- Gaztelaniako liburuak

Beti bezala, Ikastolan banatutako materialaren kostua kontu korrontetik kobratuko zaizue.

Gaztelaniako liburuak, maileguan.

NORBERAREN MATERIALA

- Arkatza, borragoma, txorroskiloa, punta fina gorria eta beltza/urdina, erregela eta estutxea
- Karpeta bat etxera zenbait lan ekarri-eraman ahal izateko eta Ikastolako saskirako beste bat.
- Koaderno handia (matematika, euskara, gaztelania, kantak...)
- Eskola-agenda
- Testu-liburuak (Txanela, euskara, matematika…)
- Ikaslearen hiztegia (Elhuyar. Urtarrilerako; ez baldin baduzue, ez erosi)
- Kalkulagailu xume bat (M+, M- eta MRC duena)
- Konpasa (urtarrilerako)
- Arropa aldagarria

# EBALUAZIOA

Ikasturte honi hasiera emateko ZERO UNITATEA prestatu dugu. Unitate honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Talde kohesioa indartzea
- Euskararen erabilera indartzea
- Ikasleei emozioak kudeatzen laguntzea
- Ikasleak IKT baliabideetan trebatzea
- Ikasleen aurre ebaluazioa egitea (euskaran eta matematikan, batik bat)

Beraz, aurre ebaluazioan jasotako ebidentziak erabiliko ditugu ikasturte honetako helburuak zehazteko. Jakin badakigu ez-ohiko ikasturte baten aurrean gaudela eta curriculuma ere doitzea ezinbestekoa izango dela.

Ikasleak ebaluatzeko erabiliko diren kalifikazioak honakoak izango dira:

- Bikain
- Oso ongi
- Ongi
- Nahikoa
- Gutxiegi

Lehen Hezkuntzan, informeak hiruhileko bakoitzaren bukaeran jasoko dituzue.

Bestalde, ikasle bakoitzaren aurre ebaluazioaren berri urriko bakarkako bileretan emango zaizue.

# IRTEERAK

Ikastolako zuzendaritza nagusiak irteerak ez egitea lehenetsi du. Hala ere, Ikastola ingurua ezagutzeko irteera ezberdinak egingo dira, baina, beti ere, autobus zerbitzurik erabili gabe.

# GAIAK ETA PROIEKTUAK

| UNITATE GLOBALIZATUA | LENGUA CASTELLANA |
|---|---|
| **4.1. Maite ditut, maite, gure bazterrak!**<br>**Gaiak:** Eskualdea kokatu eta orientatu.Mapa fisiko eta politikoen ezaugarriak aztertu. Eskualdea osatzen duten herriak ezagutu, klimaz eta paisaiaz erreparatu. Konparaketa testuak osatzeko lehenengo urratsak eman eta berdintasun eta ezberdintasunetan erreparatu. Hitz elkartuak landu.Puntuazio ikurretan sakondu.<br>**Testu generoa:** Konparazio testua gogorarazi<br>**Proiektua:** Eskualdeari buruz informazioa lortu,datu interesgarrienak hautatu eta talde ezberdinen artean txostentxo bat osatu gero txikien aurrean agertzeko.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Arranopola!, Yak Rivais (ELKARLANEAN)** | **4.1. ¡MIRA DÓNDE VIVIMOS!**<br>**Temas:** La comarca. Parajes naturales. Monumentos<br>**Tipos de textos:** Ficha informativa.<br>**Proyecto:** Hacer una exposición con el material recogido (fotos, folletos,…). Esta exposición puede ser utilizada en la presentación ante los pequeños.<br><br>**Libros:**<br>• **Un barco cargado de cuentos (S.M.)**<br>• **La escuela de magia y otros cuentos Michael Ende (SM).**<br>• **Cuatro cuentos de ciudad Andrés Guerrero (La Brújula Azul).** |
| **4.2. AMERIKETARA JOAN NINTZEN!**<br>Amerikaren kokalekua eta zati ezberdinak ikasi. Bertako kultura ezberdinak landu (amerindiarrak).Amerikatik Europara ekarri ziren produktuak aztertu eta euskaldunengan izan zuten eragina ikusi. Era Berean, euskaldunak izan eta dugun presentziaz ohartarazi.<br>Paragrafoak aztertu eta bertako idei nagusiak bereizten hasi. Kontzeptu mapak osatzen jarraitu.Ortografiarekin jarraitu.<br>**Testu generoa:** Konparazio testuaren jarraipena.<br>**Proiektua:** Antzezlan baten bitartez ikasitakoa txikiei azaldu. Antzezlan honetan koreografiak,kantak,eskulanak… ager daitezke.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Miren,Garbiñe eta sorgin baten komeriak, Pako Aristi-Jesus Lucas (ELKAR, Miru)**<br>• **Munduko ibaien poemak. Juan Kruz Igerabide (ELKAR,Xaguxar)** | **4.2. EL MUNDO A NUESTRO ALREDEDOR**<br>**Temas:** Los gentilicios. Conocer otras culturas,tradiciones,costumbres... Identificar la idea principal de los párrafos. Formar párrafos<br>**Tipos de textos:** Reportajes,presentaciones,experiencias de clase,fichas,folletos…<br>**Proyecto:** Entrevistar a personas de otras culturas y utilizar lo aprendido en la presentación del proyecto.<br><br>**Libros:**<br>• **Hombre de color Jerome Ruillier (Editorial juventud)**<br>• **Me llamo Yoon Helen Recorvits (Juventud)**<br>• **La mirada de Ahmed MªDolor Pellicer** |
| **4.3. MUGI GORPUTZA ETA IZAN ONTSA!**<br>Lokomozio aparatuaren barruan hezurdura eta giharrak ikusiko dira.<br>Osasuntsu mantentzeko ariketa fisikoak duen garrantzia azpimarratuko da baita elikadura orekatu baten premia ere.<br>Honekin batera higiene ohiturak bereganatzen hasi behar dute. Bertsogintzari jarraipena emango zaio. Hitz polisemikoak zer diren ikusiko dugu. Hitz elkartuek ere jarraipena izango dute.<br>**Testu genero nagusiak:** Esloganak, aholkuak.<br>**Proiektua:** Osasunaren eta kirolaren astea antolatu eta horretarako horma irudiak prestatu, toki ezberdinetan ipini e.a.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Eta zer? bilduma (ELKAR-ARGITALETXE ELKARTUAK).**<br>• **Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?, Andoni Egaña,Mikel Valverde** | **4.3. MIMO Y PANTOMIMA**<br>**Trabajar en grupo.** Practicar técnicas de expresión corporal,ensayarlas y utilizarlas en la exposición del proyecto. Representación de cuentos.<br>**Tipos de texto:** Cuentos<br>**Proyecto:** Utilizar lo aprendido en la exposición de los murales.<br><br>**Libros:**<br>• **El pirata Garrapata Juan Muñoz Martín (S.M.)**<br>• **Natacha Luis Mari Peszetti (Alfaguara)**<br>• **Princesa va al teatro Sagrario Pinto Martín (Everest)** |

| | |
|---|---|
| **4.4. MILA GAU ETA BAT GEHIAGO (Arabia)**<br>Arabiar penintsularen kokalekua eta bizimodua ikusi.Islamaren sorrera eta zabalkundea aztertu. Musulmanek iberiar penintsulan izandako garrantziaz eta egindako ekarpenaz ohartarazi. Musulmanek Euskal Herrian izandako presentzia (arkitekturan…) aztertu. Musulmanak gaur egun. Irakurketa dramatikoak egin, doinuak eta etenak ondo errespetatuz. Hitz polisemikoekin jarraitu. Baldintzazko esaldiak osatzen hasi.<br>**Testu generoa:** Deskribapenak sakondu.<br>**Proiektua:** Irakurketa dramatikoa egitea. | **4.4. DIBÚJAME UN CUENTO**<br>Buscar y seleccionar cuentos. Observar los trabajos de los ilustradores para conocer técnicas de dibujo. Analizar la estructura de un cuento, desde el texto hasta los dibujos.<br>**Tipos de texto:** Cuentos.<br>**Proyecto:** Ilustrar un cuento.<br><br>**Libros:**<br> **Superjuegos, pasatiempos y chascarrillos del Capitán Calzoncillos,Dav Pilkey (S.M.)** |
| **4.5. URA,BIZITZAREN ITURRI!**<br>Ura bizitzaren sorrera. Uraren propietateak ezagutu. Uraren zikloa aztertu. Uraren erabilera zuzenaren garrantziaz ohartarazi.<br>**Testu genero nagusiak:** Argibide-testua. Azalpen testua (sintesia).<br>Eta... kontzeptu-mapa, prozesuen deskribapena, esperientzien ondorioak (kausa-ondorioa).<br>**Proiektua:** Horma-irudiak egin uraren propietateak azalduz (ondorioekin, aholkuekin, azalpenekin…)<br><br>**Liburuak:**<br> **Botila baten historia,Tomas Elorza-Luis Astrain (ELKAR, Miru).** | **4.5. ¡AL AGUA PATOS!**<br>Recoger información sobre la correcta utilización del agua.<br>**Tipos de texto:** Poemas, cuentos, eslogan, instrucciones…<br>**Proyecto:** Plantear juegos relacionados con el buen uso del agua y presentárselos a las y los compañeros.<br><br>**Libros:**<br> **Fiesta de canciones, Ángel Mendoza**<br> **Canciones y palabras de otro cantar,Juan Carlos Martín Ramos (EDELVIVES)**<br> **Queridos piratas, Carlos Reviejo (AJONJOLÍ)** |
| **4.6. IZAN ZIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA**<br>Landare eta animalien ugalketa. Gizakiaren sexualitatea eta ugalketa.<br>**Testu genero nagusiak:** Krokis mota desberdinak ikusi. Azalpen testuen laburpenetan lehen urratsak.<br>**Proiektua:** Horma irudiak behatuz ahozko azalpena egin.<br><br>**Liburuak:**<br> **Etxe bitan bizi naiz, eta zer? (ELKAR, Miren Agur Meabe)** | **4.6. MÁS SABE EL DIABLO POR VIEJO QUE POR DIABLO**<br>Realizar un recorrido mostrando lo aprendido en esta asignatura: al escuchar,al leer, al escribir,al hablar en público…<br>Principales géneros textuales: textos informativos, descripciones,exposiciones…<br>**Proyecto:** Presentación oral de un tema.<br><br>**Libros:**<br> **El pequeño libro que aún no tenía nombre,José Antonio Millán (S.M.)** |

Aurreko ikasturtean zenbait gairen inguruko hausnarketa egiten hasi ginen eta bertan matematikari eta euskarari buelta bat eman behar geniola iruditu zitzaigun.

Matematikari dagokionean, gauza ezberdinak adierazten dituzten zenbait gometxa aurkituko dituzue liburuetan. Gorria (ez dugu egiten), berdea (manipulatiboki egin eta liburukoa egin) eta berde eta gorri (liburukoa ez, baina manipulatiboki bai).

Euskara arloari dagokionez, lan-koadernoak kendu ditugu eta beste modu batera ari gara horiek lantzen eta jorratzen.

# ORIENTAZIOA ETA HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK ARLOEN ANTOLAKETA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- Itziar Basterrika (HH)
- Amaia Arruti (LH)
- Jose Mari Iriondo (DBH)

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- Ane Aierbe (LH)
- Eneka Arratibel (LH)
- Amaia Arruti (LH)

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- Maite Inziarte
- Oihana Latasa
- Aitor Franco

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburua ikasleei oinarrizko konpetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea da.

Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da gehien bat:

**A) Tutoretza eta orientazioa**

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan, bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketan aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

**B) Aniztasunari erantzuna**

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.




# IKASKIDETZA

Aurreko urteetan bezala, irakasle taldeak ikasketa kooperatiboaren inguruko prestakuntza jasotzen jarraitzen du eta metodologia hau gela barruan txertatzen ari gara. Baina zer da Ikaskidetza edo ikasketa kooperatiboa?

Taldean aritzea ez da kooperazioan lan egitearen sinonimo. Ikaskidetza honela definitzen dugu: taldean eta kooperazioan egiten den ikaskuntza.

Besteekin dugun elkarrekintzaren bitartez hazten eta hezten gara, eta elkarrekin eraikitzen dugu gure ikaste-prozesua, aniztasuna eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Talde-lan hau ikaskidetza izan dadin, ezaugarri edota ardatz hauek izan behar ditu:

- Helburu komuna izatea.
- Elkarmenpekotasun positiboa izatea, hau da, azken emaitzak guztion ekarpena eta lana izatea. Horrek rol eta zereginen banaketa, kudeaketa eta elkarri laguntzea eskatzen du.
- Bakarkako erantzukizuna (ardura) ezinbestekoa da, helburua lortzeko eta edukiak eta ezagutzak garatzeko.
- Aurrez aurreko komunikazioa izatea, entzumen aktiboa lantzea, gure arteko gatazkak bideratzen ikastea…

# KIVA

KiVa bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa da. KiVa programa Finlandiako Hezkuntza Ministerioak finantzatu eta Turkuko Unibertsitateak sortu eta

garatutako eredu bat da, eskola-jazarpena murriztea xede duena. Frogatuta dago: KiVa-k eskolan jazarpena murrizten du eta ongizatea hobetzen du. Finlandian, Lehen Hezkuntzako ia eskola guztiak KiVa programa ezartzen ari dira.

Aurtengoan, Ikastolen Elkartea proiektuaren inguruko hausnarketa prozesuan murgilduta dago.

## BERTSOLARITZA

2016-2017an hasi genuen Bertsolaritza proiektua eta aurten ere gure ikasleek aukera izango dute proiektua ezagutu eta lantzeko.

Kurtso osoko programa izango da eta hamabostero, astelehen arratsaldetan, bertsolaria etorriko da Ikastolara ordubeteko saioa egitera. Bertsolaria Jokin Labaien da.

## URTEBETETZEAK

Lehen Hezkuntzako hezkuntza komunitateko pertsona askoren artean kezka sortu zen ikasleen urtebetetzeak ospatzerakoan ekartzen ziren jakien, litxarrerien... inguruan. Azken urteetan, arrazoi ezberdinengatik erabat egokiak ez ziren gozo gauzak ekarri izan dituzte ikasleek. Gaiak duen garrantzia kontuan izanda, klaustro bat antolatu genuen, irakasle guztien iritziak entzun, eta zuei proposamen bat egiteko.

Aipatu dizuegun klaustro horretan, ondorengoa onetsi zuen Lehen Hezkuntzako irakasle taldeak, baita ondoren Hezkuntza Batzordeak ere: ikasleek beren urtebetetze egunean lagunei banatzeko zerbait ekartzekotan, guztiok elkarrekin eta denek (zeliakoek, intolerantziaren bat dutenek eta alergikoek) jateko modukoa izango da; bizkotxoa, patata-tortilla edota antzeko zerbait.

Covid-19ak eragindako ondorioak direla medio, ikasleek gelakideekin zerbait partekatu nahiko balute, etxean egin ez den zerbait ekartzeko eskatu nahi dizuegu (enbasatuta/prezintatuta). Ospakizuna jolasgaraia aurretik egingo genuke, eta horrela, egun horretako hamaiketakoa urtebetetzea ospatzen duenak ekarritakoarekin beteko genuke. Ez dugu gozokirik edota “oparitxorik” banatuko.

Azkenik, urtebetetze festetarako gonbidapenak gela barruan banatuko dira, gelako ikasle guztiak festa horretara gonbidatuta badaude bakarrik.

# IKASLEEN ABSENTISMOA

ASISTENTZIA FALTAK JUSTIFIKATZEKO BALDINTZAK

Ikasleen eskubide eta betebeharrak dokumentuko 23. artikuluan oinarritua.

Hona hemen Ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, faltak justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu beharko da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio berdina dute, asistentzia faltak komunikatzeko prozedurari dagokionez.
- Gurasoei dagokie seme-alaben hutsegitearen komunikazioa. Tutoreari, berriz, ontzat jotzea; zalantza izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Hutsegitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Hutsegiteen berri ematera behartuta gaude, bai udaleko zerbitzu sozialei, bai Ikuskaritzari.
- Ikasleren bat klasera etortzen ez denean, irakasleek erregistro orrian jasoko dute.
- Ikasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek tutoreari idatziz jakinaraziko diote, aldez aurretik. Ezinezkoa denean, egun berean, telefonoz pasatuko diote abisua tutoreari eta ikasleak klasera datorren lehenengo egunean ekarriko du komunikazioa idatziz, banatuko den “txekera” erabiliz.

Egungo egoera ikusirik, kasu guztiak banan-banan aztertuko dira.

# OSASUN ARRETA

Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, mediku baten agiririk gabe.

Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta hauek etorri beharko dute ikaslearen bila.

Larrialdi egoera bat suertatuko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.

Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat martxan jarri dugu. Ikasleren batek horrelako arazorik izango balu (asma, medikazioa hartu beharra, krisialdiak…), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.

# AUTOBUSIK ERABILTZEN EZ DUTEN IKASLEAK JASOTZEA

Ikasleen sartu-atera hauek kontrolatu ahal izateko, eta inolako arazorik ez izateko, ondorengo jarraibideak errespetatzea eskatzen dizuegu:

- Ikasleak dagokien orduan jasoko dira, ezin baitute Ikastolan inoren ardurapean egon gabe geratu.
- Ikasleak Ikastolako atean utzi eta jasoko dira. Ikasleak ez dira Ikastolako hesitik kanpora bakarrik aterako, arriskuak ekiditeko.
- Ikasleak Baserri aldeko sarreran jaso beharko dira (Txikierdi bideko sarreran).

Ohituraz autobus zerbitzua erabiltzen duen ikasle batek, egun batean Ikastolan geratu beharko balu (gurasoak bila datozelako, urtebetetze festa duelako…) idatziz jakinaraziko zaio tutoreari, baita autobuseko arduradunari ere. Idatzizko agiririk aurkezten ez bada, ikaslea autobusean jaitsiko da, ohikoa den eran.

# ZUBIAK ERAIKIZ

2016ean sinatu genuen hitzarmena Ipar Euskal Herriko Ikastola ezberdinekin. Hasiera batean lau Ikastolak sinatu genuen eta ondoren Urruñakoak gehitu ziren. Hiru urte hauetan harremanak handitzen joan dira eta aurtengoan beste bi Ikastola gehituko zaizkigu hitzarmenera: Berako Labiaga Ikastola eta Lesakako Tantirumairu Ikastola. Horrela, gure Ikastolako gela guztiek harremanetan egoteko aukera edukiko dute.

HITZARMENAREN HELBURUA

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroko eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.

Aurtengo egoera ikusirik, harremanak posta, bideo, gutun… bidez egingo dira.

# ZENBAIT OHAR

- Ikasturte hasieran jakinarazitako jangelako arauak eta autobus-zerbitzuaren nondik norakoak webguneko zerbitzuak atalean dituzue eskuragarri.
- Irakasle batek ez du, inolaz ere, ikasle bat Ikastolatik jaitsiko.
- Zorrien kontua oso ezaguna zaigu guztioi, eta badakigu ikasle batek zorriak dituenean ingurukoak kutsatzeko arriskua handia dela. Beraz, astero ikasleen buruak begira ditzazuen eskatu nahi dizuegu, eta zorririk aurkituz gero, tutoreari jakinaraztea. Jakinarazpenik ez bidaltzeak ez du esan nahi zorririk ez dagoenik. Beraz, astero egin beharreko lanen artean, hau gehitzea eskatzen dizuegu.
- Ikastolan galdutako izenik gabeko jantziak hilabetez egongo dira Ikastolako sarreran (Añabitarten). Ondoren, GKE bati emango zaizkio.
- Egun osorako irteeraren bat aurreikusita dagoen egunean, eguraldia edo bestelakoak direla medio irteerara joaten ez bagara ere, ikasleak egun osoan Ikastolaren zaintzapean egongo dira.
- Jangelan geratzen direnek aldatzeko arropa ekarri beharko lukete.
- Hamaiketakoak “tupper”etan ekartzeko gomendioa zabaldu nahi dizuegu.

# EGIN KLIK!!!!

**ANIMA ZAITEZ!! ANIMA ITZAZU!!**



“Euskarak behar zaitu. Gure haurrek eta gazteek ere behar gaituzte: euskararen aldeko hautua egin dezaten, euskaraz **goza** dezaten… **EUSKARAZ BIZI** daitezen.”

Anima zaitez eta egin ezazu euskaraz, zure neurrian, zure tamainan.

Anima itzazu euren artean ere euskaraz egin dezaten.

Lehenets itzazu euskaraz dauden TB eta irrati-saioak.

Goza ezazue elkarrekin euskal musika entzunez.

Apunta itzazu orduz kanpoko euskarazko jardueretan.

**“EZ DA HORREN ZAILA”**

# GAIEN BANAKETA

| | 4A | 4B | 4C | 4D |
|---|---|---|---|---|
| **TUTORETZA** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **TXANELA** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **IKT** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **MATEMATIKA** | AINHITZE | AINHITZE | MAIALEN G. | ALAZNE |
| **ATZERRIKO HIZKUNTZA** | MAIALEN I. | MAIALEN I. | IRATI | MAIALEN I. |
| **GAZTELANIA ETA LITERATURA** | MAIALEN G. | MAITANE S. | ALAZNE | ALAZNE |
| **GORPUTZ HEZKUNTZA** | JONE | JONE | JONE | JONE |
| **ARTE HEZKUNTZA (MUSIKA)** | GEMA | GEMA | GEMA | GEMA |
| **ARTE HEZKUNTZA (PLASTIKA)** | MAIALEN I. | MAITANES. | MAIALEN G. | ALAZNE |

# INTRODUCCIÓN

En Orereta Ikastola son los y las tutoras las referentes para las madres y padres. Son ellos quienes conocen la realidad de las y los alumnos, y por ello, es muy importante que estén informados. Si algún alumno o alumna tuviera que ir al comedor o cambiar de autobús, por ejemplo, el o la tutora debería estar informada.

Así mismo, es el o la tutora quien gestiona las dudas y quejas de las madres y padres. Debéis dirigiros a ellos ante cualquier problema que os surja, y serán ellos quienes deriven el asunto a quien corresponda. Además, queremos recordaros que podéis contar con las o los delegados de clase, quienes llevarán los temas generales a la comisión de madres y padres.

Os pedimos que os pongáis en contacto con las y los tutores a la hora del recreo (11:00-11:30) por teléfono, o por medio de notas que haréis llegar por medio de vuestros hijos o hijas. Si necesitarais una cita personal, deberéis coger cita previamente, porque de otra forma, no le será posible atenderos adecuadamente.

He aquí los correos electrónicos de las tutoras:

- miribarren@oreretaikastola.eus
- masanchez@oreretaikastola.eus
- jbrinas@oreretaikastola.eus
- airiarte@oreretaikastola.eus

# REUNIONES CON LAS FAMILIAS

Durante el curso, habrá dos reuniones individuales con cada familia. Además, al inicio y al final del curso, se harán dos reuniones generales. En la primera presentamos el plan anual y en la segunda haremos una valoración sobre el curso.

# FUNCIONAMIENTO DE LA CLASE

## TRABAJO DIARIO

En este ciclo, la o el alumno continuará con los hábitos de trabajo iniciados en el ciclo anterior.

## HÁBITOS DE TRABAJO

- Atención
- Empezar y terminar las tareas

- Postura adecuada
- Limpieza
- Silencio
- Autonomía
- Valorar el trabajo del compañero o compañera
- Uso de ropa adecuada en la sesión de Educación Física (camiseta y toalla pequeña)
- Aprender a usar la agenda de forma adecuada
- Traer un delantal o camiseta vieja para las clases de plástica

NORMAS DE CLASE

- Aprovechar los momentos de entrada, salida y recreo para ir al baño
- Cuidado del material propio y el de clase
- Intentar mantener el orden y la limpieza en la clase
- Desplazarse correctamente por pasillos y escaleras
- No está permitido comer chicles, caramelos, pipas... en clase
- Respetar a los demás, evitando insultos, tacos, ofensas, golpes...
- Comportamiento correcto en el patio y en la parada del autobús:
    - Respetar las normas del juego
    - Dejar jugar a todos
    - Aprender a pedir perdón

DEBERES

El objetivo de los deberes que se mandan a casa es reforzar lo aprendido en clase e ir adquiriendo autonomía. Si el alumno o alumna no fuera capaz de hacer los trabajos mandados por sí mismo, es mejor que no los haga y se indique la dificultad observada mediante una nota.

En este aspecto, durante el 2º ciclo, los deberes se basarán en los puntos siguientes:

- En casa, mirar la agenda y realizar los deberes correspondientes.
- Leer un poco todos los días.
- Cuando tenga que traer información sobre algún tema, deberá preocuparse de buscarla y traerla a su debido tiempo, con ayuda de las madres y los padres, y seleccionando la información adecuada para su edad.
- Animarse a traer noticias.
- Ensayos de flauta.
- Escuchar el CD de inglés.
- Memorizar las tablas de multiplicar, preparar la exposición del tema trabajado.
- Multiplicaciones, divisiones…

AFICIÓN A LA LECTURA

**Biblioteca de clase**

Para poner en marcha la biblioteca de clase, cada alumno o alumna deberá traer un libro que le guste y que haya leído (uno en euskera y otro en castellano). Estos libros se rotarán por medio de préstamos. En caso de pérdida de algún libro, se deberá traer el mismo para que no haya faltas en la biblioteca. Para hacer el seguimiento de la lectura que hacen, les repartiremos una agenda de lectura a cada uno o una. Agradeceríamos que les controlarais un poco.

Como consecuencia del Covid-19, los libros entregados serán puestos en cuarentena.

**Kontu kontari (en grupos de convivencia)**

Le ofrecemos media hora a esta actividad. Cada profesor o profesora elegirá un cuento y así, las y los alumnos tendrán la opción de escuchar cuatro cuentos diferentes al mes.

# MATERIAL

MATERIAL COMÚN

- Pinturas, rotuladores, folios…
- Libros de lenguaje

El material que se les dé en la Ikastola se os cobrará por la cuenta corriente.

Libros de castellano en préstamo.

MATERIAL PERSONAL

- Lápiz, goma de borrar, punta fina azul/negro y rojo, fosforito, regla (30cm.) y estuche
- Una carpeta para llevar y traer los deberes de casa, y otro para la Ikastola
- Bloc grande para: matemáticas, euskera, lenguaje, canciones…
- Agenda escolar
- Libros de texto: Txanela, euskera, matemáticas…
- Diccionario de euskera (Elhuyar. Para enero; en caso de no tener, no comprar)
- Calculadora (sencilla con M+, M-, MRC)
- Compás (para enero)
- Ropa de cambio

# EVALUACIÓN

Para dar comienzo al nuevo curso hemos decidido poner en marcha la unidad cero, en la cual trabajaremos los siguientes objetivos:

- Fomentar la cohesión grupal
- Fomentar el uso del euskera
- Ayudar a los alumnos y alumnas a gestionar las emociones
- Enseñar la utilización de las TIC a los alumnos y alumnas
- Hacer la pre-evaluación a los alumnos y alumnos (en euskera y matemáticas, sobre todo)

Los objetivos de la primera evaluación serán modificados en base a los resultados obtenidos en la pre-evaluación.

El proceso de aprendizaje del alumno o alumna se evaluará por objetivos. Éstas son las calificaciones que se utilizarán:

- Sobresaliente
- Notable
- Bien
- Suficiente
- Insuficiente

Los resultados de la pre-evaluación serán explicados en las reuniones de octubre.

En LH, los informes se publicarán en Alexia a finales de cada trimestre.

# EXCURSIONES

La dirección general de la Ikastola ha decidido no realizar excursiones en las que se tenga que utilizar el autobús.

# TEMAS Y PROYECTOS

| UNITATE GLOBALIZATUA | LENGUA CASTELLANA |
|---|---|
| **4.1. Maite ditut, maite, gure bazterrak!**<br>**Gaiak:** Eskualdea kokatu eta orientatu.Mapa fisiko eta politikoen ezaugarriak aztertu. Eskualdea osatzen duten herriak ezagutu, klimaz eta paisaiaz erreparatu. Konparaketa testuak osatzeko lehenengo urratsak eman eta berdintasun eta ezberdintasunetan erreparatu. Hitz elkartuak landu.Puntuazio ikurretan sakondu. | **4.1. ¡MIRA DÓNDE VIVIMOS!**<br>**Temas:** La comarca. Parajes naturales. Monumentos<br>**Tipos de textos:** Ficha informativa.<br>**Proyecto:** Hacer una exposición con el material recogido (fotos, folletos,…). Esta exposición puede ser utilizada en la presentación ante los pequeños.<br><br>**Libros:** |

| | |
|---|---|
| **Testu generoa:** Konparazio testua gogorarazi<br>**Proiektua:** Eskualdeari buruz informazioa lortu,datu interesgarrienak hautatu eta talde ezberdinen artean txostentxo bat osatu gero txikien aurrean agertzeko.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Arranopola!, Yak Rivais (ELKARLANEAN)** | • **Un barco cargado de cuentos (S.M.)**<br>• **La escuela de magia y otros cuentos Michael Ende (SM).**<br>• **Cuatro cuentos de ciudad Andrés Guerrero (La Brújula Azul).** |
| **4.2. AMERIKETARA JOAN NINTZEN!**<br>Amerikaren kokalekua eta zati ezberdinak ikasi. Bertako kultura ezberdinak landu (amerindiarrak).Amerikatik Europara ekarri ziren produktuak aztertu eta euskaldunengan izan zuten eragina ikusi. Era Berean, euskaldunak izan eta dugun presentziaz ohartarazi.<br>Paragrafoak aztertu eta bertako idei nagusiak bereizten hasi. Kontzeptu mapak osatzen jarraitu.Ortografiarekin jarraitu.<br>**Testu generoa:** Konparazio testuaren jarraipena.<br>**Proiektua:** Antzezlan baten bitartez ikasitakoa txikiei azaldu. Antzezlan honetan koreografiak,kantak,eskulanak… ager daitezke.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Miren,Garbiñe eta sorgin baten komeriak, Pako Aristi-Jesus Lucas (ELKAR, Miru)**<br>• **Munduko ibaien poemak. Juan Kruz Igerabide (ELKAR,Xaguxar)** | **4.2. EL MUNDO A NUESTRO ALREDEDOR**<br>**Temas:** Los gentilicios. Conocer otras culturas,tradiciones,costumbres... Identificar la idea principal de los párrafos. Formar párrafos<br>**Tipos de textos:** Reportajes,presentaciones,experiencias de clase,fichas,folletos…<br>**Proyecto:** Entrevistar a personas de otras culturas y utilizar lo aprendido en la presentación del proyecto.<br><br>**Libros:**<br>• **Hombre de color Jerome Ruillier (Editorial juventud)**<br>• **Me llamo Yoon Helen Recorvits (Juventud)**<br>• **La mirada de Ahmed MªDolor Pellicer** |
| **4.3. MUGI GORPUTZA ETA IZAN ONTSA!**<br>Lokomozio aparatuaren barruan hezurdura eta giharrak ikusiko dira.<br>Osasuntsu mantentzeko ariketa fisikoak duen garrantzia azpimarratuko da baita elikadura orekatu baten premia ere.<br>Honekin batera higiene ohiturak bereganatzen hasi behar dute. Bertsogintzari jarraipena emango zaio. Hitz polisemikoak zer diren ikusiko dugu. Hitz elkartuek ere jarraipena izango dute.<br>**Testu genero nagusiak:** Esloganak, aholkuak.<br>**Proiektua:** Osasunaren eta kirolaren astea antolatu eta horretarako horma irudiak prestatu, toki ezberdinetan ipini e.a.<br><br>**Liburuak:**<br>• **Eta zer? bilduma (ELKAR-ARGITALETXE ELKARTUAK).**<br>• **Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?, Andoni Egaña,Mikel Valverde** | **4.3. MIMO Y PANTOMIMA**<br>**Trabajar en grupo.** Practicar técnicas de expresión corporal,ensayarlas y utilizarlas en la exposición del proyecto. Representación de cuentos.<br>**Tipos de texto:** Cuentos<br>**Proyecto:** Utilizar lo aprendido en la exposición de los murales.<br><br>**Libros:**<br>• **El pirata Garrapata Juan Muñoz Martín (S.M.)**<br>• **Natacha Luis Mari Peszetti (Alfaguara)**<br>• **Princesa va al teatro Sagrario Pinto Martín (Everest)** |
| **4.4. MILA GAU ETA BAT GEHIAGO (Arabia)**<br>Arabiar penintsularen kokalekua eta bizimodua ikusi.Islamaren sorrera eta zabalkundea aztertu. Musulmanek iberiar penintsulan izandako garrantziaz eta egindako ekarpenaz ohartarazi. Musulmanek Euskal Herrian izandako presentzia (arkitekturan…) aztertu. Musulmanak gaur egun. Irakurketa dramatikoak egin, doinuak eta etenak ondo errespetatuz. Hitz polisemikoekin jarraitu. Baldintzazko esaldiak osatzen hasi. | **4.4. DIBÚJAME UN CUENTO**<br>Buscar y seleccionar cuentos. Observar los trabajos de los ilustradores para conocer técnicas de dibujo. Analizar la estructura de un cuento, desde el texto hasta los dibujos.<br>**Tipos de texto:** Cuentos.<br>**Proyecto:** Ilustrar un cuento.<br><br>**Libros:**<br>• **Superjuegos, pasatiempos y chascarrillos del Capitán Calzoncillos,Dav Pilkey (S.M.)** |

| | |
|---|---|
| **Testu generoa:** Deskribapenak sakondu.<br>**Proiektua:** Irakurketa dramatikoa egitea. | |
| **4.5. URA,BIZITZAREN ITURRI!**<br>Ura bizitzaren sorrera. Uraren propietateak ezagutu. Uraren zikloa aztertu. Uraren erabilera zuzenaren garrantziaz ohartarazi.<br>**Testu genero nagusiak:** Argibide-testua. Azalpen testua (sintesia).<br>Eta... kontzeptu-mapa, prozesuen deskribapena, esperientzien ondorioak (kausa-ondorioa).<br>**Proiektua:** Horma-irudiak egin uraren propietateak azalduz (ondorioekin, aholkuekin, azalpenekin…)<br><br>**Liburuak:**<br> **Botila baten historia,Tomas Elorza-Luis Astrain (ELKAR, Miru).** | **4.5. ¡AL AGUA PATOS!**<br>Recoger información sobre la correcta utilización del agua.<br>**Tipos de texto:** Poemas, cuentos, eslogan, instrucciones…<br>**Proyecto:** Plantear juegos relacionados con el buen uso del agua y presentárselos a las y los compañeros.<br><br>**Libros:**<br> **Fiesta de canciones, Ángel Mendoza**<br> **Canciones y palabras de otro cantar,Juan Carlos Martín Ramos (EDELVIVES)**<br> **Queridos piratas, Carlos Reviejo (AJONJOLÍ)** |
| **4.6. IZAN ZIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA**<br>Landare eta animalien ugalketa. Gizakiaren sexualitatea eta ugalketa.<br>**Testu genero nagusiak:** Krokis mota desberdinak ikusi. Azalpen testuen laburpenetan lehen urratsak.<br>**Proiektua:** Horma irudiak behatuz ahozko azalpena egin.<br><br>**Liburuak:**<br> **Etxe bitan bizi naiz, eta zer? (ELKAR, Miren Agur Meabe)** | **4.6. MÁS SABE EL DIABLO POR VIEJO QUE POR DIABLO**<br>Realizar un recorrido mostrando lo aprendido en esta asignatura: al escuchar,al leer, al escribir,al hablar en público…<br>Principales géneros textuales: textos informativos, descripciones,exposiciones…<br>**Proyecto:** Presentación oral de un tema.<br><br>**Libros:**<br> **El pequeño libro que aún no tenía nombre,José Antonio Millán (S.M.)** |

El curso anterior empezamos a reflexionar en torno a las asignaturas que impartimos y nos decantamos por empezar a cambiar la metodología de la lengua vasca y las matemáticas.

En cuanto a las matemáticas, deciros que las páginas irán indicadas con pegatinas de colores diferentes, ya que éstas significan de qué forma se ha trabajado ese tema. La pegatina roja (no hacemos el ejercicio), la verde (hacemos la actividad en la hoja y manipulativamente) y los dos colores (la actividad del libro no la hacemos, pero sí que la realizamos manipulativamente).

En cuanto a la lengua vasca, hemos quitado los cuadernos de actividades. Ello no quiere decir que no trabajamos la lengua escrita, sino que la trabajamos de otra manera.

# ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO DE ORIENTACIÓN Y PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

## DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

- Itziar Bastarrika (HH)
- Amaia Arruti (LH)
- Jose Mari Iriondo (DBH)

## PROFESORES ESPECIALISTAS EN PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

- Ane Aierbe (LH)
- Eneka Arratibel (LH)
- Amaia Arruti (LH)

## ESPECIALISTAS DE APOYO EDUCATIVO

- Aitor Franco
- Oihana Latasa
- Maite Intziarte

## OBJETIVO DEL DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

El objetivo de la orientación es que todas las alumnas y alumnos adquirieran las competencias básicas y ayudar en el desarrollo de su proyecto personal.

Por lo tanto, el departamento de orientación de Orereta Ikastola tiene como función impulsar una orientación educativa, ayudando en el currículum y a todas y todos los alumnos. La labor del departamento se basa, sobre todo, en dos procesos:

**A) Tutoría y orientación**

En tutoría y orientación se trabajan diferentes actividades dentro del aula y fuera de ella, para ayudar a las alumnas y alumnos en diferentes áreas de su desarrollo: conocimiento y aceptación personal (desarrollo personal), proceso de socialización (desarrollo social), llevar adelante los estudios (proceso de aprendizaje), y tomar decisiones para el futuro (orientación laboral).

**B) Atención a la diversidad**

Estamos elaborando un plan que recoge las medidas organizativas ordinarias y extraordinarias para dar respuesta a las necesidades educativas de todo el alumnado, con el objetivo de ayudar a todas las alumnas y alumnos a adquirir las competencias básicas.




# IKASKIDETZA

Como en años anteriores, las y los profesores de la Ikastola seguimos formándonos en el aprendizaje cooperativo y aplicando esta metodología en el día a día. Pero, ¿qué es el aprendizaje cooperativo? Trabajar en grupo no es sinónimo de cooperación. Definimos IKASKIDETZA como el aprendizaje que se hace en grupo y en cooperación.

Crecemos y maduramos gracias a la interacción con el grupo y construimos conjuntamente el proceso cognitivo, teniendo en cuenta la pluralidad y las características propias de cada individuo. Para que un trabajo en grupo sea considerado como IKASKIDETZA, debe tener las siguientes características:

- Tener un objetivo común
- La aportación y el trabajo de todos los participantes debe ser imprescindible para conseguir el resultado final (interdependencia positiva). Esto exige la adjudicación y gestión de roles y tareas, y la ayuda mutua.
- La responsabilidad de cada individuo es crucial para conseguir el objetivo común y para desarrollar los conocimientos y contenidos.
- Mantener una comunicación frente a frente, trabajar la escucha activa, aprender a gestionar los conflictos que puedan surgir…

# KIVA

KiVa significa contra el acoso o anti acoso. El programa KiVa es un modelo financiado por el Ministerio de Educación de Finlandia y desarrollado por la Universidad de Turku para reducir el acoso escolar. KiVa ha demostrado que reduce el acoso escolar y aumenta el bienestar en las escuelas. En Finlandia, casi todas las escuelas primarias implementan el programa KiVa.

Durante este año, la Federación de las Ikastolas está reflexionando sobre este proyecto.

# BERTSOLARITZA

El curso 2016-2017 comenzamos con el proyecto de Bertsolaritza, y nuestros alumnos y alumnas este año también tendrán la posibilidad de conocer y de trabajar las rimas.

El curso se dará durante todo el año, cada quince días (los lunes por la tarde), con un bertsolari que vendrá a la Ikastola desde Bertsolari Elkartea y que trabajará junto con la profesora del centro. Jokin Labaien será el bertsolari que trabajará con nosotros.

# CUMPLEAÑOS

Hace ya un tiempo que diferentes estamentos de la Ikastola mostraban su preocupación sobre los dulces y caramelos que traían las y los alumnos para celebrar su cumpleaños.

Con la intención de buscar una solución, celebramos un claustro especial para tratar el tema, del cual surgió la siguiente propuesta; que se consultó y se aprobó en la Comisión de Madres y Padres, y que ha recibido la aprobación de la Comisión Pedagógica de la Ikastola: en caso de querer traer algo para celebrar el cumpleaños de las y los alumnos, se traerá algo que podamos comer entre todas y todos, y todas y todos (celíacos y alérgicos): bizcocho, tortilla de patata o similares.

Como consecuencia de la Covid-19 los alumnos y alumnas no podrán traer alimentos manipulados en casa (y deberán estar envasados/precintados). Celebraremos el cumpleaños antes de salir al recreo. No repartiremos dulces o "regalos".

Finalmente, las invitaciones a la fiesta de cumpleaños sólo se repartirán en clase, siempre y cuando todos y todas las estudiantes del aula estén invitados a esa fiesta.

# ABSENTISMO ESCOLAR

## CONDICIONES PARA JUSTIFICAR LAS FALTAS DE ASISTENCIA

Basado en el artículo 23 de los derechos y deberes de los alumnos.

Aquí están las pautas que seguiremos para justificar las faltas de asistencia, siguiendo las directrices marcadas desde Inspección:

- Es obligatoria la asistencia diaria a clase. Todas las faltas de asistencia deberán ser comunicadas. Las actividades complementarias y extraescolares tendrán la misma consideración que las ordinarias en cuanto a la comunicación se refiere.
- Corresponde a las madres y los padres la comunicación de dichas faltas. Sin embargo, será el tutor o la tutora quien las acepte; en caso de duda, el equipo de dirección decidirá su validez.
- Cuando la falta sea considerada inaceptable, se le comunicará a la familia. Estamos obligados a comunicar las faltas tanto a servicios sociales como a Inspección.
- Cuando un alumno o alumna no acuda a clase, el o la profesora lo anotará en la hoja de registro.
- Cuando las y los alumnos no puedan asistir a clase, las madres y los padres o responsables legales deberán comunicarlo de antemano. Cuando no sea posible, el mismo día se avisará al tutor o la tutora por teléfono y cuando el alumno o alumna se incorpore, deberá justificarlo por escrito, utilizando la chequera que se les entrega.

Como consecuencia de la COVID-19, cada caso será estudiado de manera particular.

## ATENCIÓN MÉDICA

En la Ikastola no daremos ningún tipo de medicación, a menos que haya una prescripción médica. Si algún alumno o alumna enfermara en horario escolar, se llamará a las madres y los padres, y serán ellos quienes tengan que venir a buscarlo.

En caso de emergencia, se llamará a los servicios pertinentes y a los padres y madres, informando de la situación.

Se ha puesto en marcha un nuevo protocolo para alumnos o alumnos con enfermedades crónicas. En caso de padecer algún tipo de enfermedad (asma, necesidad de suministrar alguna medicación, episodios de crisis…), por favor, poneos en contacto con el tutor o la tutora para que ponga en marcha dicho protocolo.

# FUNCIONAMIENTO DE ALUMNOS Y ALUMNAS QUE NO USAN EL TRANSPORTE ESCOLAR

Por diversos problemas que hemos tenido en años anteriores, nos vemos obligados a pedir que respeten las siguientes directrices:

- Habrá que dejar y recoger a las y los alumnos a la hora, pues no pueden estar sin la supervisión de algún adulto que se responsabilice de su seguridad.
- No podrán salir de la verja solos, por el peligro que ello implica.
- Los alumnos y alumnas serán recogidos en la entrada de Txikierdi bidea.

Aquellos alumnos y alumnas que habitualmente cogen el autobús, pero que un día en concreto no vayan a utilizarlo porque se quedan en la Ikastola (por tener una fiesta de cumpleaños…), deberán traer una nota para el tutor o la tutora y otra para la responsable del autobús. En caso de que no exista dicha nota, el alumno o a la alumna cogerá el autobús.

# ZUBIAK ERAIKIZ

Zubiak Eraikiz es un acuerdo que realizamos en 2016 con diferentes Ikastolas de Iparralde. En un principio fuimos cuatro Ikastolas y, posteriormente, se unió la Ikastola de Urruña. Durante estos años las relaciones han aumentado, y ejemplo de ello es la posible incorporación de las Ikastolas de Bera (Labiaga) y Lesaka (Tantirumairu). Así, todas las clases tendrán la oportunidad de relacionarse.

## OBJETIVO DEL ACUERDO

Crear la oportunidad de relacionarse, aunque estemos en diferentes territorios administrativos. Con el fin de fortalecer y realizar diversas actividades mediante las personas que constituimos el entorno vasco, queremos involucrar a las y los alumnos, profesores y familias. En este proyecto, el euskera será el eje de las relaciones.

# OTROS TEMAS

- Las normas del comedor y el servicio de autobús que se os comunicaron a principio de curso podéis consultarlos en la sección “zerbitzuak” de la página web.

- Las y los profesores no bajarán a las y los alumnos de la Ikastola bajo ningún concepto.
- El tema de los piojos es algo conocido por todos. Sabemos lo contagiosos que son estos parásitos. Por ello, os pedimos que reviséis las cabezas de vuestros hijos e hijas todas las semanas, y en caso de encontrar alguno, comunicarlo al tutor o la tutora.
- La ropa que las y los alumnos pierdan en la Ikastola y no tenga nombre permanecerá durante un mes en la entrada del edificio de Añabitarte. Después, se donará a una ONG.
- Los días en los que esté prevista una salida y ésta no se pueda realizar, las y los alumnos permanecerán y comerán en el mismo centro escolar.
- Las y los alumnos que se queden en el comedor tendrán que traer ropa para cambiarse.
- Recomendamos traer el almuerzo en un tupper.

## EGIN KLIK!!!!

**¡¡ANÍMATE!! ¡¡ANÍMALES!!**



"El euskera te necesita. Nuestros niños y jóvenes también nos necesitan: para que lo utilicen, para que **disfruten**, para que vivan en euskera."

Anímate y utilízalo, en la medida de tus posibilidades.

Anímales a que se comuniquen en euskera.

Prioriza los programas de TV y radio en euskera.

Disfrutad juntos con la música en euskera.

Apúntalos a actividades extraescolares que garanticen la comunicación en euskera.

**"¡NO ES TAN DIFÍCIL, DEPENDE DE UN KLIK!"**

# ASIGNATURAS

| | 4A | 4B | 4C | 4D |
|---|---|---|---|---|
| **TUTORÍA** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **TXANELA** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **TIC** | MAIALEN I. | MAITANE S. | JONE | ALAZNE |
| **MATEMÁTICAS** | AINHITZE | AINHITZE | MAIALEN G. | ALAZNE |
| **LENGUA EXTRANJERA** | MAIALEN I. | MAIALEN I. | IRATI | MAIALEN I. |
| **LENGUA Y LITERATURA** | MAIALEN G. | MAITANE S. | ALAZNE | ALAZNE |
| **EDUCACIÓN FÍSICA** | JONE | JONE | JONE | JONE |
| **EDUCACIÓN ARTÍSTICA (MÚSICA)** | GEMA | GEMA | GEMA | GEMA |
| **EDUCACIÓN ARTÍSTICA (PLÁSTICA)** | MAIALEN I. | MAITANES. | MAIALEN G. | ALAZNE |